

Esp. Zkia.- KE-2025-037
E.E.- 2025-00320

293/2025 DEKRETU ZENBAKIA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2025eko garagarriaren 8an.

OINARRIA: 2025eko garagarriaren 6an eta sarrera erregistro nagusiko E202502301 zenbakiagaz, Olarreta Pilota Elkartek Larrabetzuko Udaleko 2025eko Aurrekontu Orokorrean modu nominatiboan zehaztutako diru-laguntzaren eskaria egin zuen. Diru-laguntzaren zenbatekoa 11.000,00 eurokoa da.

OINARRIA: 2025eko otsailaren 14an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025 ekitaldi ekonomikorako Udal aurrekontuaren behin betiko onarpena argitaratu zen eta horretan Olarreta Pilota Elkarteari diru-laguntza nominatiboa agertzen da 341.48101 aurrekontu partidaren. Partida horretan 11.000,00 euroko kreditua dago.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22 eta 28. artikuluetan, Lege hori garatzen duen araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, honako hau EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Olarreta Pilota Elkarteari 341.48101 aurrekontu partidaren pentsuan 11.000,00 euroko diru-laguntza ematea, ebazpen honetan zehaztutakoari jarraituz:

- Diru-laguntzaren objektua: Larrabetzuko herriari kirolariak ekartzen jarraitzea, harrobia haur txikietan landuz, gizartean modu osasuntsuan eta errespetuzkoan hezte, gozamina eta ikaskuntza garaipenaren nahien aurretik jarritz.
- Aurrekontu kreditua: 11.000,00 euro, udal aurrekontuko 341.48101 aurrekontu partidaren pentsuetan.
- Xede berdinarekin lortzen diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota baliabideekin bateragarria izango da, horiek bestelako Administrazio Publikoetatik datozela edo beste erakunde publiko edo pribatutik datozela kontuan izan gabe. Justifikazioarekin batera bestelako diru-sarrerak lortu izanaren inguruko akreditazioa egin beharko da.
- Diru-laguntza ebazpen hau ematearekin %70a ordainduko da eta geratzen den %30a justifikazioa egin eta gero ordainduko da.
- Diru-laguntza justifikatzeko epea 2026ko zezelaren 28an bukatu egiten da. Justifikazioa lege aplikagarriak zehaztutako moduan egingo da.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diru-zaintzari eman diru-laguntzaren ordainketa egin dezan.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau interesdunari jakinarazoko jako.

LAUGARRENA.- Udalbatzako Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran Dekretu honen barri emongo da.